

# LARRALDEA SARIA

## Bertsopaper lehiaketa



2017ko otsailean **Lapurdi 1609** eta **Bertsularien Lagunak** elkarteek Senpereko Bertsulari eta Ditzolariei omenaldi xume bat eskaini diete, bat-bateko bertsu eta ditxoekin batera idatzizkoak ere liburu batean bilduz.

Izan ere bertsulari eta bertsu idazle andana izan ditu Senperek, eta badira gaur egun beren xokoan ohidura horri segida ematen diotenak. Larralde bertsopaper lehiaketa berri hunek Senpereko eta Euskal Herri guziko bertsu idazleei beren lanak argitara emateko parada bat eskaini nahi die.

Anima zaitte, buru xokoan edo apaletan dituzun bertso horiek guri igortzera, anima itzazu zure ingurukoak ere parte har dezaten, denon artean bertsu idatziei arnas berri bat eman diezaiegun!

### OINARRIAK

Adinaren arabera bi mailatan banatzen dugu:

- **Gazteen maila:** 17 urtera artekoak.
- **Helduen maila:** 18 urte edo gehiagokoak.

**Bi mailetan** parte hartzaile bakoitzak nahi adina bertsopaper aurkez ditzake.

**Gazteen mailan** idatzi beharreko bertsoak gutxienez 4 eta gehienez 8 izango dira.

**Helduen mailan** idatzi beharreko bertsoak gutxienez 6 eta gehienez 10 izango dira.

**Bi mailetan**, gaia, neurria eta doinua bezala, librea izango da, bakoitzaren aukerakoa.

Lanak helbide honetara bidaliko dira: **Lapurdi 1609 Elkartea**  
Larralde Bertsopaper Lehiaketa  
Larralde, Amotze auzoa  
64310 SENPERE

e-postaz: [lapurdi1609@laposte.net](mailto:lapurdi1609@laposte.net)

**Lanak igortzeko epea: 2017ko azaroaren 1a**

Lapurdi 1609



### BALDINTZAK

- Bertso guziek berriak izan behar dute, hots, beste inon saritu edo argitaratu gabeak.
- Ezinbestekoa da, bertso sorta bakoitzaren **doinua** izenburuaren ondoan zehaztea.
- Lanak posta arruntez bidaltzerakoan: bertsopaperean ez du egilearen izenak agertu behar. Bertso sorta bakoitza izengoitiz sinatuko da eta egilearen izen-abizenak, jaioteguna, helbidea eta telefonoa/e-maila beste gutun-azal batean sartuko dira, kanpoaldean izengoitia ageri dela. Bi gutun-azaletan bertsogilea zein mailatara aurkezten den zehaztu behar da.
- Posta elektronikoz bidali nahi badira, .odt edo .pdf formatuko bi dokumentu bidali behar dira. Batean bertso sorta bera izengoitiz sinatua eta bestean goitizena eta norbere xehetasunak.

### SARIAK

Helduen maila	Gazteen maila
1. Saria: 300€	1. Saria: BTNko finaleko sarrera + XILABA jertsea + Hiztegia
2. Saria: 200€	2. Saria: BTNko finaleko sarrera + XILABA kamiseta + Hiztegia
3. Saria: 100€	3. Saria: BTNko finaleko sarrera + Hiztegia

**Saritutako lan guziak Herria eta Hitza astekarietan argitaratuko dira.**

### SARI BANAKETA

**2017ko abenduaren 3an** egingo da Larraldean, goizeko 10etan.

Epaimahaia, Lapurdi 1609 eta Bertsularien Lagunak elkarteek izendatuko dute. Epaimahaiaren erabakiak aldaezinak izango dira.

### LANEN JABETZA

Lan sarituen jabetza bertso jartzaileen esku egonen da. Antolatzaileek eskubide osoa izanen dute lan horiek argitaratzeko. Arautegi honetan agertzen ez den edozein gorabeheratan, antolatzaileek izanen dute azken erabakia hartzeko eskumena.

### INFORMAZIOA

Beste informaziorik edo behar izanez gero telefono zenbaki honetara dei dezakezue:  
**05 59 54 15 04** (Bertsularien Lagunak Elkartea)